

EUSKALTZAINDIA

Hizkuntza guztik dute "academia" delako baten beharra. Izan ere, adar berriak eman ez ditzen, hizkeltzietan sakabana ez duden, zagar eta oker ez dadin, dozein hizkuntzak du finkatu beharra.

Dozein hizkuntzak badu zainzilaren beharra, are gehiago gurean antzera dagoen hizkuntzak. "Izan ere, eskolan sarrera debekatu zaion hizkuntza, idatzizko zeregintarako erabili ez dena, ofizialtasunik gabekoa, gizaratan ditzirarik ez duena, eta zabalkunde-tresnak ukatzen zaizkiona... nola atera ahal daiteke bizirik?", zioen Euskaltzaindiak Euskal Herriari egindako hitzaldian.

Dozein "academia"k ditu hutsuneak. Euskaltzaindiak nahar-menagoak, noski. Izan ere nortasunik alortzen ez zaion herriaren erakunde bat da. Baina baditu inolaz ere onartu ez ditzakegun hutsunak. Nolaz eduki ditzake berruan, Euskaltzaindiak erabakitakoa onartzen ez duten euskaltzainak? Nolaz eduki ditzake erabakien arka dabilenak?

Badago "academia"ren aurkako jenderik. Beti egon da eta egongo ere. Halere badu Euskaltzaindiak bere itzala. Geuk eman diogu oraindik orain, Lanteri bateko langileen artean Euskaltzaindiari buruzko bildutako ikur-ikurua. Izan ere, Euskaltzaindiari ez jarraitzekotan zein jarraitu? Bai al da bere eskasaren ere honek hainbat garrantzia duen gizonik edo erakunderik euskara arloan?

Berrogeita hamar batzuetan dira Euskaltzaindiak sortu zela. Egin dituen lanek eta izan dituen eta gaur daukazan gizon ospetsuek eman diote herria den itzala.

Besteak beste, euskara batzaeren helburua du sorreratik xedeari bat. Gerra aurrean izan zuen helburua honek, irakinik bereen eta arrakastarik biziena. Ikustekoa da zenbait idazten zuten "Euskeraren batasuna".

Gero, denok dakigun eta gozatu dugun ekaitzak harat-honat zabaltu zuten euskaltzainak. Etxean bizirik gertatu zirenak ere, bakoitza bere tokoan izukatu zen badeapada ere.

Dena hilik geratu zen: ikastolak, asteakariak, aldizkariak, liburuak, sariketak, jaialdiek... Elizak ere elizkizunak eta hitzaldiak erdaraz egiteko agindua hartu zuten. Kalean ere kontuak eskatzen ziren euskaltzain mintzazteagatik.

Baina denborak gauza asko lurperatzen du: minak, atseka-beak, ikarak, denak ahantzaraten ditu.

Berriro politikoki berpizten hasi ginen. Berriro euskaltzain burutxo bakan batzuek, aldizkari bakan batzuek, jaialdi soil batzuek egiten hasi ginen.

Gaur ikastolak indartu eta hedatu dira, aldizkariak eta liburuak ugalduta, herri-irratiek sortu, kultura asteak moldatu, abeslari eta bertsoari jaialdiek antolatuta...

Beripizte berriz honen berruan Euskaltzaindiak bere sorrerako urrezko etxetik ospatzen zuten. Euskeraren batasuna zuen helburutzat ospaketa hark.

Hala zioen orduko euskaltzainburu D. Manuel Lekuonak sarrerako hitzaldian: Batasuna: idatzitako, ez izkitako; idazlearen artean, ez errian; eta idazleak berak beren idazki errikoetan, ez goi-idaztietan. Hitz bitan: batasuna bi gauza oietan: a) Aldizkarietan ("Zeruko Argian", "Anaitasunean", "Yakinen", "Jaunaren deian", "Laiaketan" etab. etab.); b) Ikastoetan, Ikastolako Liburutetan eta jolasleketan etab. etab.; c) Liturgiaren zenbait zatitan...

Egia esan ez gintuen behar bezain giroturik hartu asmo eta erabaki honek zenbait idazle eta euskaltzale. Izan ziren tirabirako zenbaiten litozabegierak eta batasunaren aldeko zenbaiten "badeapadak" asko hozten gintuen.

Baina igaro zen urtebako erabaki hark zenbaitetan sortu zuen harridura hura. Gaur idazle askok onartu eta eskertu dugu Arantzakuzko Batzar hura.

Arazoak zuten D. Manuelek: "Euskerak biziko bada, batzuek behar, beso-bakartu, anka-bakartu egin behar..." "bizitza dezan, eta ugariago dezan".

Izan ere euskara ez ortografian, ez hitzetan, ez deklinabidean eta ez aditzean zegoen baturik. Gutxi al zen bizirik gordetzea? Batasuna beharrezkoa dugu. Eta Euskaltzaindiak eginiko batasunak bakarrik izan dezake itzalki eta garrantiarik onena. Hamar urteko epea eskatzen zuten orduko euskaltzainburuak. Igaro dira bost. Bitartean eman dituzte ortografia batzuek legeak, ezarri dituzte deklinabidearen moldeak, egindako zenbait hitzen zerranda, batzuek aditz laguntzailea. Lan egin du. Eta oro har, lan egokia eta zentzukoa.

Baina, oraindik zeregin haundia dauka. Moldagabea dauka oraindik Hitzegi Orokorra. Euskaltzaindiak eginiko Hitzegi Orokorra behar dugu. Ez da bakarka egiteko lana.

D. Manuelek inolaz ere berrituzik nahi ez zuten "ofizietan eta gobernoan" borrokarik berritu badira ere, sekulan baino egoera hobean gaude batasuna egiteko. Idazle asko da Euskaltzaindiari jarraitzeko gozoz. Ikastola askok hartu dute Euskaltzaindiari buruz. Aldizkariak, alfabetatze jardunek eta geuron arteko borrokek asko ugaltu dute irakurlekoa eta idazlekoa. Abeslariak, bertsoariak eta herri-irratiek ere hango eta hemengo hitz ezezagun asko barreiatu dute herrian. Elizkizunak ere, asko, euskara hutsan dira.

"Operazioa, egin-bearreko gauza izan oi-da askotan, biziri laguntzeko, bizirik irateko" zioen D. Manuelek sarrerako hitzaldian Arantzazun. Ebakuntza hori egiteko unerik egokienean gaudela usate du.

Aurrera jo behar du Euskaltzaindiak bildurrik eta atsedenerik gabe. Batasuna egiteko epearen erdia amaitu da. Benetan egokia litzateke beste biltzar bat, egin dena aztertzeke eta batasunari beste biltzadaz berrituz bat emateko.

Aurrera!

EGUN EGUNGOA

HAURRIDEAK ARROTZ OTE?
Voltaire, Shakespeare edo beste holako atzerritar izenen bat beren jatorrizko eran ez baditugu ebakitzen, arloz gara. Baina etxeko izenak jatorrizko moduan ebakitzea farregarri omen zaigu.
Ai, gure ergelkeriaren handia!
DANIEL IBARGOITI

"REALPOLITIK" ETA... GOROTZA

Azkeneko banakoan ikusi dudanez, Z. ARGIAK ez du enbajadorerik Pekinen. Banekien, noski, eta ene irakurleek ere bai: bazekiten. Baina baldin inork zalantzarik bazuen, oraintxe ahituko zaizkio, nik uste, azkeneko duda atzarnak. Ezen, nola liteke bestela, jaunak, Dalai Lama ustelaren fotorik gaur argitaratzeko ausardia gaitza izatea? (Urriaren 21eko banakoan, 555 zbl., Irailaren «Euskal Erlijioa» artikuluan.)

Orain dela ia 15urtez geroztik bizi da Dalai-Lama Dharmasala-n, Mao-ren armadetatik ihesi iritsia. Tanten Budismoaren Aita Saindua dena, Lhasa hiri sakratu harrigarriaren buruzagi osoa, Irdiaren Iparaldean bizi da geroztik, Himalayako tontorrek urrunean ageri zaizkiola.

Bere inguruan, bera bezala 1959ko udaberri hiri hartan presaka eta muturka itzuriak, beste 60.000 tibetar, munduak zeharo ahantziarik. Zer ote da bada gaurko mundu nahasian 60.000 desherriertu zorigaitza? Nork pentsatu ote du sobera palestinez azken egunotako kindaldian?

Eta Dalai Lamak Europan zehar inguru bat egitea erabaki du. Vatikanotik hasita (IX-30), Austria, Dinamarca, Mendebal-Alemania, Eire, Nederlanda, Noruega, Suezia, Helvetia eta Britainia Nagusia kurritu ditu sei atzetan; eta artikulu hau agertu orduko, Kaxemiria ondoko bere bizileku baketsura itzulia date.

Nazioarteko «Realpolitik» deritzan gorotz-meta hori zer den behin eta betirako ulertzeko, nekez asma zitekeen bidaie egokiagorik eta argizaleagorik. Italiako gobernuak markatu die bidea Iatsiatien. Zergatik ez duen Dalai-Lama errezebitu nahi izan galdetu dutenei hauxe erantzun die hitz hitz: «Pekinen Enbajadak presentatu, are gutxiago gomendatu, ez digun txinatar bat delako».

Frantziak, era berean, nahiz Dalai-Lamak bere bidaie «pribatua» dela esan, eta «Mendebalde eta Ekaldoko filosofiei buruzko elkarrizketa lortzeko» baizik ez datorrela, Mao-tarrei enbarazorik egin nahi ezean, arbiatu egin du ikustamena; eta kitto.

Maorekin irekitako bakealdiri eutsi beharrez, erabaki berbera hartu du Nixonek.

Jokabide antzekotan barrena abiatu da India bera; eta Tibetar desherriek, horretaz jabeturik, saminkari idatzi zioten iaz Indira Gandhiri: «nous insistons le plus sérieusement auprès du gouvernement indien, pour que la question du Tibet ne soit pas sacrifiée sur l'autel d'une possible détente sino-indienne... Gizaok! Ezen Indiak zergatik isilik egin ugaru baitu: Nagatarrak eta Mizotarrak Ekaldetan, esate baterako, Kaxemirarrak Iparaldean, eta Inditar maozaleak berak. Mehatxu bikainak hauek Maoren eskutian. Eta hortik hitzak gabeko itzul isila: «Nik ez dit Tibet aipatuko; baina hik heuk Nagatarrak eta Kaxemirarrak jabsalduko dituk». Bapoi!

Mao aratz, garden, garbi eta anti-rebisionista saindua ez galarazteko, beraz, Dalai-Lama eta tibetarrak oro... utikan!

Nor harri liteke horietaz, ordea, burubidea balu? Zer ikusi genuen Bangladesh-en arazoan? Pakistanen laguntasunari atxikitzeotan, Pekinek, Bangladesh-eko maozaleak berak zafratuz, Islamabad-en inperialismoa defenditu zuela. Marxismo-leninismoaren izenean, jakina.

Eta Tibetean zanpaketa aurrera doa. Inperialismorik klasikoaren arabera jokatu, bi partetan zatitu du Tibetak Mao-Tse-Tungek. Ekaldetako (1.275.000 lagun) «txinatar probintzia» egin du; eta Mendebaldeko (2.800.000 lagun) «eskualede autonomo». «Divide ut vincas» zioten erromatarrek orain dela bi mila urte.

Bi erdiotan, jakina, Tibetek kondariri Txinarena nagusitu zaio; eskolako hizkuntza bakartzat, txinera sartu da, tibetera baztertzat; bertako agintari ustel eskuindarren orde, txinatar marxista-leninista argituak ekarri dira. Eta lur garaitan dagoen 3.800.000 kilometro koadratoko erresuma gaitz hura, horrela, txinatarz doa azkar, eta Txinako parte bihurtuz.

Nori izan dakioko axola gaur, ordea, 1959an gertatu zen okupazio hura? Nor gogoratzen da la-maista haletaz, budista ikasle edo jarraitzaile batzuk izan ezik? Beharrik sartu ziren maozaleak!

Mao 700 milioiren izenean mintzo da; Dalai-Lama, berriz, 4 milioiren izenean. Hortaz, nori menegio diote gobernu gorriko gobernu txuriek eta gobernu urdinek? «Realpolitik» deritzan horrek zer agintzen duen asmatzea ez da zaila: bost axola zuzentasuna, indartsuenari amen.

Nor harrituko da, hortaz, berriz galdetzen dut? Maoren jokoa nabarmena izan baita behin eta berriz aspaldiko honetan. Bangladeshen kontra, esan dugunez, Pakistan eskuindarra txalotu ondoren, gero New Yorken, Madrilen eta Atenasen izendatu ditu bere ordezkari ofizialak. Marxismo-leninismoaren izenean, noski.

Eta sineskaitzagorik ere ikusi dugu aste hauetan. Zeren-eta Chou-En-Laik Pempidouren aurrean hau esan ondoren: «Allenderen xede prestuak betirako itsatsirik geldituko dira gizonen bihotzetan»; Urriaren 10ean, ia-ia biharamonean beraz, gaueko hamarretan, Urbe txiletarra aurrerakoan Santiagoko gobernuaren enbajadorezkat hartuko ez zuela adierazi baitzuen. Ez hori bakarrik: Pinochet-ek Marx-en eta Mao-ren liburuak piloka Txileko enparantzetan erre arazten zituen momentuan, Allenderen ohoretan Pekinen Maoren gobernuak Urriaren 11rako prestatua zuen festa... debekatu egin zuen! Eta Urbe sozialista «sozialismo zientzioraren izenean, kalean gelditu zen, nor a jo zekiela, eta deusik konprentzen ez zuela. Ezen Moskuk eta gainerako «rebisionista» ustelak, denok batera, harreman diplomatikoak hautsi baitituzte Pinochet-ekin.

Zer pentsatuko dugu, hortaz, gure politikabidea eta gure lagunak zein ote diren argitzeotan, bizpahiru liburu sakratutako pasarte gorri-gorri batzuk etengabe irakurtzen dizkigutenez?

LARRESORO



Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA
Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratzaile (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66
ARPIDE SARIA:
Barruan 300 pezeta
Korreo batasunetako errietan 350 pezeta
Atzerrietako beste errietan 370 pezeta
Aldez Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta
Irarkola:
«Gráficas Navasas»
A. Adoain, 1 IRUIREA
D. L.: NA. 80-1963

LANA, LANGILEA, LANTEGIA UDAZKENA

Ez pentsa gero, udazkena dela eta, poesia lanik egiteko asmotan gabiltzanik. Udazkenaz era askotara hitzegin daiteke, eta guk guregun geure artean gertatzen diren bakarrak jardungo dugu.

Erabaki trinkoak hartuak zituzten. Prezioak izoztu beharra, geldi erazi beharra han eta hemen, non nahi esaten zen. Etxekoandreak kezkarik izan ez zezen, hitzaldi eta neurri zorrotzik eskaini digute. Eta guztia, ia guztia, hutsaen gelditu da. Hasi seme alaben eskolotik, testo liburuaren kosteak, matrikulak eta abar. Gero eguneroko konpratzen gatzaten direnak, gasolinaren egoera, beharrezkoak diren gauzen prezioen gorakada eta abar. Dena gora eta geldi erazteko esperantzarik ez, gainera.

Prezioen gorakadaren zuloa gutxitzearen, zenbait lantegitan, azkenaldi honetan, bai Bizkaian bai Gipuzkoan, eztabaidarik, opporraldirik, grebarik ez da falta. Beste zenbaitetan gauzak onean ere konpandu dira. Baina, dena den, aurrerantzerako bada kezkarik. Jurnal altxaketen eskabideek segiko dute. Bestalde, inflazioa bertan daukagula, dolarraren ahulezia ezezik gure ekonomiarrenak ere nabarmenak dira. Urte berri ingururako lan beherdidi baten susmo txarra zabaldu. doa. Zer gertatuko ote zaigu? Ekonomiarren egoeraz, «kojunturaz», hitzeginen ditugutenean ere lanak ematen ditu behar bezala ulertzeko. Erabiltzen duten hiztegia, berezia baita.

Europari begira, berriz, eguraldia lainotsua azaltzen zaigu. Bide luzean ez da ezertxo ere ikusten, eta bertara begira ez dirudi oraingoz gauzak aldatuko direnik: Esperantza azkeneraino ez omen da galdu behar. Baina esatera zaharrak dioten bezala: balizko olak burdinik ez, Nekazalgoaren arazoak dela, industriari kaltegarri ez dakion pausoak neurritz, patxadan eman behar direla. Europako uniformidade alde batera utzita eta pluralidade bat onartu beharok lutekeela. Frantziak bere babesa eskainiko dizkio. Gauza asko entzun dugu udazken honetan eta urrutiko indaxurrak dirudite.

Eliza eta estatuaren arteko harremanak nondik zindotu eta sendotuko buru belarri ikusi ditugu, Argazkian ikusi ahal izan genuenez, txanpan koparen brindis delakoa ere ez zen falta izan. Diplomaziarren eskakizunak? Eliza pobre baten aldeko pausoak? Bide horietatik abiatuz, Eliza pobrea izango ote?

Bai; udazken berezia doakigu aurrerago. Eguraldi ona, ezin hobea egin du, uza osoan egin izan ez duen bezalako. Baina uza parteko opporraldirik igaro ondoren, gauzak eman duten aldaketa ikusi ondoren, konbeniotako sari eta gainontzeko bentajak bi urtetan arras atzean gelditzen direla antz eman ondoren, ezin eona, kezka eta zenbaitetan borrokarik sortzeko ez aitu harritzen. Eta honek ere baditu bere arriskuak. Jurnal hobea lortuz gero, egiazko gaitzaz, sistemak aldatu beharraz, ahaztu gitezke. Neokapitalismoak horretan argi jokatzen badaukiela behin baino gehiagotan erakutsi du.

Zer esan estudiantea eta Unibersidadeaz? Zer esan irakaslearen egoeraz, matrikularen goraltzeaz, estudianten egiten diren aldaketaz? Noiz irai hainbeste eta hainbeste estudianteren etorkizunari zailantzepean iraua erazi?

Udazkenean gaude. Udaberria urrutit samar daukagu eta biharren negua igaro behar. Eta nolako negua, gero!

MIKEL UGALDE

